



“Ez pentsa EITB betirako denik!”

Edurne Ormazabal I
Behin-behineko lanpostuan

Gaztea-ko zuzendari ohia, EITB.com-eko egungo arduraduna, Zinemaldiko galen gidari glamurosoa, *Katu Kale* programa mitikoaren aurkezlea, tolosarra...

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

1990etik gaur arte EITBko zuzendaritzan... Susmagarria, ezta?

Susmagarria? Postu elektrikoak albistegiei eta aktualitateari lotuta daudenak dira. Nori inporta zitzaion Gaztea bertan hasi nintzeanean? Eta EITB.com-i buruz asko hitz egiten da orain, baina orain dela lau urte?

Gaztea ez zitzaiola inori axola?! Kritika askotxo jasotzen zenituzten ba...

Beste modu batera egin zitekeela? Ziur baietz, baina konbentzituta geunden hori zela bidea eta denborak arrazoia eman digu. Gaur egun, Gaztea 40 Principales-en gainetik dago!

Eta arrazoiak noiztik isiltzen ditu kritikak?

Kanpoko formula bat zela? Ados, baina garai hartan jende askok Radio 3 egin behar genuela aldarrikatzen zuen, eta Radio 3 ez da 40 Principales baino euskaldunagoa izango, ezta?

Auskalo, bilbotarrak nahi duten tokian jaiotzen badira...

Radio 3ren formula Radio 3k asmatu zuela uste duzu? Ez duzu usteko 40 Principalesen eredia 40 Principalesek sortua dela, ezta? Zorionez edo zoritxarrez, gure zibilizazio honetan gauza gehienak amerikarrek asmatu dituzte.

Leku ederrera etorri naiz *Katu kaleren* itzulera aldarrikatzera.

Nik ikusiko nuke, baina uste duzu musika

saio bat kontsumituko lukeen gazte batek 25 minutuko erreportajea jasango lukeela? Ongi etorri azkar kontsumitzeko pilula laburren arora!

Orain ulertu dut zuk zuzentzen duzun EITB.com-en filosofia.

Besteak sarean badaude gu ere bai. Zergatik ez dira gure produktuak gure erabiltzaileen esku egongo? Gaur egun, Interneterako estrategiarik ez daukan komunikabideak ez dauka etorkizunik.

EITBn lanpostu finko bat lortzeko, estrategiak ez, mirari bat behar da!

EITBn, beste edozein komunikabidetan, eta metalurgian! Bukatu da bizitza osorako lanpostuen eredia. Hemendik ateratzera eta beste hizkuntza batzuetan lan egitera ohitu beharko gara.

Ez al zen ba “gertu” Euskadi Irratiaren leloa?

Orain dela urte batzuk inork ez zuen zalan-tzan jartzen EITBren beharra, baina orain bai. Egunero eskaintzen dugunarekin gure izana justifikatu behar dugu. Ez pentsa EITB betirako denik!

Ez esan *Goenkalek* EITBk baino gehiago iraungo duela!

EITBk, RTVEk, edo BBCK ez daukate etorkizun ziurrik. Kulturari lotuta dagoen eredu publikoa hankaz gora doa, eta zer gertatuko da diru publikorik egongo ez denean? ■